

Aiako Udaletxeko batzar aretoan eta egun honetako arratsaldeko 18,30tan, Udalbatzarra bildu da.

Alkate Lehendakari jaunak zuzendu du bilera eta bertara ondoko Udalkideak agertu dira:

LEHENDAKARIA: IGOR ITURAIN IBARGUREN

INEGOTZIAK :

- 1.- MARIA JESUS ARRUABARRENA
- 2.- MAITANE ARRILLAGA ALDALUR
- 3.- BITTOR SANCHEZ MENDIZABAL
- 4.- ANTXON GOMEZ LORENTE
- 5.- MARI KARMEN EGURZA AGIRRE
- 6.- JOXEMARI LIZARRALDE

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA: ITZIAR AZURTZA-SORRONDEGI

Lehendakari jaunak hala adierazita ekitaldiari hasiera eman eta ondoren azalduko gertatu eta erabaki da:

1.- Aurreko udalbatzaren Akta onartu

Urriaren 30eko Akta onartu du aho batez Udalbatzak.

2.- “Armendi-Gain” kooperatibako 24 etxebizitzei eta atxikitutako 24 garaje zein 24 trastelekuei behin-betiko kalifikazioa ematea, Aiako erregimen bereziko Udal etxebizitza tasatu gisa, “1,3 indizearekin”.

Etxebizitza, garaje eta trastelekuek ezaugarriok dituzte azalerei dagokienez:

22.ataria:

- 1)22-behe-A: etxebizitza 83,55m²;terraza 102,31 m²;11.garajea32,57 m²; 19.trastelekua8,60m².
- 2)22-behe-B:etxebizitza 78,34m²; terraza 44,42 m²;12.garajea 31,8 m²; 20.trastelekua7,25m².
- 3)22-1-A:etxebizitza 83,55 m², 13.garajea 33,71 m², 21.trastelekua 8,82m²
- 4) 22-1-B:etxebizitza 81,69 m², 14.garajea 33,97m², 22.trastelekua 9,71m².
- 5) 22-2-A:etxebizitza 83,55 m², 15.garajea 32,06m², 23.trastelekua 8,96m².
- 6) 22-2-B:etxebizitza 81,69m², 16.garajea 32,69m², 24.trastelekua 8,73m².

23. ataria:

- 7) 23-behe-A: etxebizitza 83,55m²; terraza 90,06 m²; 7. garajea 26,75m²; 13. trastelekua 9,40m².
- 8) 23-behe-B: etxebizitza 78,34m²; terraza 44,42 m²; 9. garajea 28,31m², 14. trastelekua 7,47m².
- 9) 23-1-A: etxebizitza 83,55m², 10. garajea 29,83m², 15. trastelekua 8,59m².
- 10) 23-1-B: etxebizitza 81,69m², 17. garajea 31,96m², 16. trastelekua 9,38m².
- 11) 23-2-A: etxebizitza 83,55m², 18. garajea 31,62m², 17. trastelekua 7,79m².
- 12) 23-2-B: etxebizitza 81,69m², 19. garajea 34,19m², 18. trastelekua 7,90m².

24. ataria:

- 13) 24-behe-A: etxebizitza 83,55m²; terraza 96,06 m²; 8. garajea 26,75m², 7. trastelekua 10,32m².
- 14) 24-behe-B: etxebizitza 78,34 m²; terraza 44,42 m²; 20. garajea 34,19m², 8. trastelekua 8,99m².
- 15) 24-1-A: etxebizitza 83,55m², 21. garajea 31,62m², 9. trastelekua 11,85m².
- 16) 24-1-B: etxebizitza 81,69m², 22. garajea 31,96m², 10. trastelekua 8,45m².
- 17) 24-2-A: etxebizitza 83,55m², 23. garajea 32,69m², 11. trastelekua 7,61m².
- 18) 24-2-B: etxebizitza 81,69m², 15. garajea 32,06m², 12. trastelekua 11,53m².

25. ataria:

- 19) 25-behe-A: etxebizitza 83,55m²; terraza 144,66m²; 2. garajea 30,78m², 2. trastelekua 6,72m².
- 20) 25-behe-B: etxebizitza 78,34m²; terraza 44,42 m²; 1. garajea 38,53m², 1. trastelekua 8,70m².
- 21) 25-1-A: etxebizitza 83,55m², 3. garajea 31,8m², 3. trastelekua 8,40m².
- 22) 25-1-B: etxebizitza 81,69m², 4. garajea 32,57m², 4. trastelekua 8,39m².
- 23) 25-2-A: etxebizitza 83,55m², 5. garajea 29,83m², 5. trastelekua 8,49m².
- 24) 25-2-B: etxebizitza 81,69m², 6. garajea 28,31 m², 6. trastelekua 8,31m².

Salmenta prezioak, 156.580.-euro eta 139.286.-euro tartean daude.

Aiako Udaltzaren, 2007ko urriaren 30ean, behin-behineko kalifikazioa eman zien aipaturako 24 etxebizitza, 24 garaje eta 24 trastelekuei, erregimen bereziko "1,3 indizea"-rekin Aiako Udaltzaren etxebizitza Tasatu bezala, hau da, etxebizitza erabileradun m² bakoitzak 1.572,88.-euro eta garaje zein trastelekuen m² bakoitzak 628,87.-euroko balioa izan dezaketelarik gaur egun.

Aiako Hirigintza plangintza Arau Subsidiarioen Berrikuspen agiriak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatu Kontseiluak behin-betiko 2007ko azaroaren 6an onartutakoak, Armendi Gain sektorean "babes publikodun etxebizitzak aurrikusi ditu espreski.

Azalerak direla eta, Aiako Udaltzaren Etxebizitza Tasatuen Ordenantzak- 2007ko apirilaren 23an onartuak eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean uztailaren 30ean argitaratuak- 4. artikuluan, arautu du orohar, *Udalbatza Akta-2007-XI-7*

etxebizitzek 90 m² erabilgarri izango dituztela, atxikitutako garajeek 30 m² erabilgarri eta trastelekuek 10 m² erabilgarri. Baina eraikinaren diseinu eta konfigurazioaren ondorioz azalera handiagoak izan ditzaketela ere zehaztu du.

Kasu honetan, behe solairuetako etxebizitzek terrazak dituzte kooperatibisten erabaki baten ondorioz. Terraza hauek sotoan duden garaje-gunearen sabaia dira aldi berean eta Jabetza Horizontal Legearen arabera eraikinaren osagai amankomun izan arren, kooperatibistek beren jabetza amankomuna behe solairuko jabeei pribatiboki eskualdatzea ontzat eman dute, mantenu gastuak behe solairuko jabe pribatuei egotziz. Beraz, behe solairuko etxebizitzek terrazak atxikituta izan ditzakete eraikinaren konfigurazioaren eta kooperatibisten erabakien ondorioz, horrek etxebizitzaren azalera ez baitu handitzen.

Bestalde, zenbait garaje 30 m²tik gorakoak dira eraikinaren diseinua dela eta. Horregatik, eraikinaren berezitasunagatik justifikatua gelditu dira azalera gehikuntza txiki hauek.

Aiako Udal Etxebizitza Tasatuen Ordenantzaren 10. artikuluari jarraikiz, kalifikazioa egiteko prozedurari dagokionez, behin-behineko kalifikazioaren ondoren lehen erabilera lizentziarekin batera behin-betiko kalifikazioa emango da.

Aiako Udal Etxebizitza Tasatuen Ordenantzaren 11 eta 12. artikuluen arira, kalifikazioaren ondorioz etxebizitza zein atxikitutako garaje eta trastelekuak, modu iraunkorrez, gehienezko eskualdatze prezio bati lotuak egongo dira eta lehentasunez eskuratze eta atzera eskuratze eskubide bati lotuak ere bai, udalaren zein Aia Lantzen S.A.ren alde edo Eusko Jaurlaritzaren alde.

BOZKETA: Alde 4 bozka; abstentzioa, 3 bozka.

AKORDIOA: Udalbatzak, gehiengoz, erabaki du:

BAT: “Armendi-Gain s.coop” baltzu kooperatibak sustatutako “Armendi Gain” sektoreko “R.3A.2” partzelan 22, 23, 24 eta 25 atarietan dauden 24 etxebizitza eta atxikitutako 24 garaje eta 24 trastelekuei, **behin-betiko kalifikazioa ematea AIAKO ERREGIMEN BEREZIKO UDAL ETXEBIZITZA TASATU BEZALA, 1,3 INDIZEAREKIN**, erregimen orokorreko babes ofizialeko etxebizitzaren gehienezko prezioarekiko, hau da, gaur egun, etxebizitza erabileradun metro karratu bakoitzaren gehienezko prezioa 1.572,88.-eurotan finkatuz eta garaje zein trasteleku erabileradun metro karratu bakoitzaren prezioa 628,87 .-eurotan ezarri.

BI: Behe solairuetan dauden etxebizitzei atxikitutako terrazei tratamendu berezia ematea salmenta edo eskualdatze prezioaren muga dela eta. Honela, terrazaren benetako azalerari ondoren adierazitako ponderazio koefizientea ezarriko zaio eskualdatze prezioa kalkulatzekoan, ezin baitzaio terraza m² bakoitzari etxebizitza m² bakoitzaren balioa aplikatu bere horretan.

- * 22-behe-A: terrazaren benetako azalera 102,30 m²; ponderazio koefizientea 0,0479.
- * 22-behe-B: terrazaren benetako azalera 44,42 m²; ponderazio koefizientea: 0,0464.
- * 23-behe-A: terrazaren benetako azalera 90,06 m²; ponderazio koefizientea: 0,0476
- * 23-behe-B: terrazaren benetako azalera 44,42 m²; ponderazio koefizientea: 0,0464
- * 24-behe-A: terrazaren benetako azalera 96,06 m²; ponderazio koefizientea: 0,0477.
- * 24-behe-B: terrazaren benetako azalera 44,42 m²; ponderazio koefizientea: 0,0464
- * 25-behe-A: terrazaren benetako azalera 144,66m²; ponderazio koefizientea: 0,0485
- * 25-behe-B: terrazaren benetako azalera 44,42 m²; ponderazio koefizientea: 0,0464.

3.- Andatza auzoko urbanizazio lanen esleipena

Idazkariak gogora ekarri du Andatza auzoan urbanizazio obra egiteko kontratazio espedienteari ekin ziola Udaltzaren 2007ko urriaren 1ean. Obra honen exekuzio material aurrekontua, proiektuan, 283.097.-eurokoa da (BEZ kanpo) eta exekuzio epea bi hilabetekoa. Aldizkari Ofizialean urriaren 18an iragarri ondoren, 13 egun naturaleko epea igaro eta gero Kontratazio Mahaia azaroaren 5ean bildu zen eskaintzak aztertzeko.

Hiru enpresa aurkeztu dira, Asfaltos Naturales de Campezo, Codosa eta Urbycolan.

Alkateak kontratazio mahaian gertatutakoa azaldu du, labur-labur. Honela, “A” gutun-azala ireki eta frogatuta gelditu da honakoak aurkeztu dituztela hiru enpresek: 1.- Enpresaren sailkapenari dagozkion ziurtagiriak; 2.- Ahalduaren NAN kopia; 3.- Enpresaren eraketa eskriturak; 4.- Kontratu legeak ezarritako bateraezintasunik ez dutela adierazten duen deklarazioa; 5.- Zerga arloko eta Segurtasun Sozial arloko betebeharrak betetzen dituztela adierazten duten ziurtagiriak; 6.- Behin-behineko bermea.

Ondoren, “ B” gutunazalak ireki eta aurkeztutako proposamenak aztertu dira.

1.- CODOSA

- Eskaintza ekonomikoa: 320.018,50.-euro
- exekuzio epea: 7 aste

2.- CAMPEZO

- Eskaintza ekonomikoa: 296.560,40.-euro
- exekuzio epea: 6,5 aste (azaroak 12 hasi eta abenduak 21 bukatu)

3.- URBYCOLAN

- Eskaintza ekonomikoa: 268.530,70.-euro
- exekuzio epea: 6 aste

Jarraian, proposamenaren ponderazioari ekin zaio (10 punturen gain; eskaintza ekonomikoak 6 puntu balio ditu; exekuzio epeak 2 puntu eta baliabideek 2 puntu).

Eskaintza ekonomikoaren batzbestekoa 295.036,53.-eurokoa da (hau da, 6 puntu gehienez).

- 1.- Codosak, eskaintza garestiagoa egin du, % 8,40-an. Beraz, 0 puntu. Hau da, 0 pt.(6tik)
- 2.- Campezok, eskaintza garestiagoa egin du % 0,5ean. Beraz, 5 puntu, hau da, 0,6 pt. (6tik)
- 3.- Urbicolanek, eskaintza merkeagoa egin du % 8,9an. Beraz, 10 puntu, hau da, 1,2 pt.(6tik)

Exekuzio epeari dagokionez, honakoa da neurketa (2 puntu gehienez).

- 1.- Codosak, 7 aste. Beraz, 10 puntu. Beraz, 0,66 pt.(2tik)
- 2.- Campezok, 6,5 aste. Beraz, 30 puntu. Beraz, 2 pt. (2tik)
- 3.- Urbicolanek, 6 aste. Beraz, 30 puntu. Beraz, 2 pt. (2tik)

Giza baliabide eta baliabide teknikoengatik, udal aparejadorearen ustez, honakoa da balorazioa (2 puntu gehienez):

- 1.- Codosa, 2 pt (2tik)
- 2.- Campezo, 1,5 pt (2tik)
- 3.- Urbicolan, 2 pt (2tik)

Beraz, guztira, eskura zitezkeen 10 puntutatik honakoak izan dira azken emaitzak:

- 1.- Codosak 2,66 pt.
- 2.- Campezok 4,6 pt
- 3.- Urbicolanek 5,2 pt.

Horregatik, kontratazio mahaiak aho batez proposamen egin dio Udalbatzari URBYCOLAN enpresari Andatza auzoko urbanizazio obraren exekuzioa esleitzen zehaztutako prezioan.

Bozketa eginda, zinegotzi guztiek URBYCOLANi esleipena egitearen alde egin dute.

AKORDIOA: Udalbatzak, aho batez, erabaki du URBYCOLAN SL enpresari esleitzea Andatza auzoan urbanizazio obra kontratua, kontzeptu guztiak barneratuz, 268.530,70.-eurotan sei asteko epean.

4.- 2008 urterako Ordenantza Fiskalak aldatzeari hasierako onarpena eman

Alkateak proposatu du 2008 urterako Ordenantza Fiskalak aldatzea, honako atalei dagokienez:

A) ZERGAK:

- 1.3.- Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen Gainekoa.: % 2,7eko igoera

B) TASAK :

- 1.-Ur banaketa eta saneamendu zerbitzuak. Igoera %5,4ean.
- 2.- Zabor bilketa Indarrean dauden kuotak %20ean igotzea
3. -Lizentziak emateagatik Jarraian jasotako aldaketak

a)Eraikinen lehen erabilera eta irekiera:

- Etxebizitza eta trasteleku bakoitza 70
- Jarduerak (merkatal lokal eta garaje bakoitza) 100

e) Jarduera lizentziak:

- Sailkatugabeko jarduerak 100
- Jarduera sailkatuak:
- 500 m2 arteko eraikinak 200
- 500m2tik 1.000 m2 arteko eraikinak 420
- 1.000 m2tik 2.000 m2 arteko eraikinak 750
- 2.000 m2tik gorako eraikinak 1.500

4.- Gizarte Zerbitzuak. Honako irizpideak :

1) Etxez etxeko laguntza

Diru ekarpena kalkulatzeko zerbitzuaren orduko salneurri publikoa 9€tan ezartzen da.Gaitasun ekonomikoa zehazteko , onuradun guztien errenta eta ondarea hartuko dira kontuan. Hileko sarrerei ondare higiezinaren eta higigarrien % 10 gehituko zaio. 30.000 € tik gorako ondasunak badira, salneurri publikoaren %100 ezarriko zaio.

Hileko dirusarrerak.	Ekarpena
570,60 €arte	Salneurri publikoaren % 25
571 € tik 985€ arte	“ “ % 50
986 €tik - 1399 € arte	“ “ % 75
> 1400 tik aurrera	“ “ %100

Onuraduneko eta hileko gehienez ordainduko dena 390 € izando da.

2) Ospitaletxe

- 2.1 Etxebizitza babestua750 € / hileko.
- 2.2 Eguneko zerbitzua.....10 €/ eguneko.
- 2.3 Eguneko bazkaria.....4 €/ eguneko.
- 2.4 Erroparen garbiketa.....3,5 € zerbitzuko.

5.- Hileta zerbitzuak. %2,7ko igoera

6.- Brigadako langileek eta bideak garbitzeko makinaren erabileragatik emandako zerbitzuengatik: % 2,7ko igoera

7.- Fotokopia eta fax zerbitzua. Jarraian jasotako aldaketa : DIN A4: Fotokopia bakoitza 0,08 Euro

8.- Udal probalekua-dema plaza. % 2,7ko igoera .

9.- Musika eskola. %2,7 igoera

Idazkariak adierazi du, bai hasierako onarpen akordioa bai espedientea jendaurrean egongo direla hilabetez Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz geroztik, Udal Idazkaritza-bulegoetan.Bestalde, gogorarazi du, informazio publiko aldia igaro ondoren, inolako erreklamaziorik egin ez bada, hasierako onarpen akordioa behin-betikotzat jo eta ondorioz, aldaketok islatzen dituzten Ordenantza Fiskalak behin betiko onartuak izan direla ulertuko dela, beste erabaki espresurik hartu beharrik gabe.

Bozketa: 4 alde, 3 abstentzio.

AKORDIOA: Batzarkideek, gehiengoz, onartu dute 2008 urterako Ordenantza Fiskalak aldatzeari hasierako onarpena ematea, aipatutako atalak direla eta.

5.- Galderak eta eskaerak

Ez dago.

Bilera 19:40tan bukatu da eta bertan esan eta onartutakoak jasota gera daitezten, idazkariak idatzi eta bertaratutakoek onartu eta izenpetu dute, Aian 2007ko azaroaren 8an.

IGOR ITURAIN IBARGUREN

MARIA JESUS ARRUABARRENA

MAITANE ARRILLAGA ALDALUR

JOXEMARI LIZARRALDE

BITTOR SANCHEZ MENDIZABAL

ANTXON GOMEZ LORENTE

MARI KARMEN EGURZA AGIRRE

Itziar Azurtza-Sorrondegik,
Idazkari-kontuhartzaileak.